

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN, ERAKUNDE HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN SAILA
Gazteria Zerbitzua

Loreto Arriola kaleko 25.eko lokala gazteen jardueretarako erabiltzeko baimena emateko deialdiaren ebazpena

Gazteria Zerbitzuak abian jarri zuen elkarte edo kolektiboei Loreto Arriola kaleko udal lokalak erabiltzeko baimena emateko deialdia, bertan gazteei zuzendutako proiektuak gara zitzaten. Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko apirilaren 4an onetsi zuen deialdia, eta 2025eko ekainaren 9an argitaratu zen ALHAOn.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta eskabide jaso dira: Mirari Rol-Jokoak Elkartea-rena (Mirari) eta Gasteiz Fights Cancer Elkartearena (GFC).

Gazteria Zerbitzuaren txostenean, aurkeztutako eskabideen balorazio teknikoa egin da, eta lokala erabiltzeko baimena Mirari Rol-Jokoak Elkarteari ematea proposatzen da, puntuaziorik altuena lortu duelako:

IRIZPIDEAK	MIRARI	GFC
Proiektuaren justifikazioa. 4 puntu gehienez	4	1
Bazkideen edo kolektiboko kideen kopurua 1-10 pertsona: 1 puntu 11-30 pertsona: 2 puntu 31-50 pertsona: 3 puntu 50 pertsona baino gehiago: 4 puntu	4	1
Entitatearen helburuen, proiektuen, jardueren eta abarren zabalpena. Deskribatzea zein diren entitatearen zabalkunde-bitartekoak, helburuak, jarduerak eta abar zabalitzeko bideak: argitalpenak, kartelak, aldizkariak, eskuorriak, hitzaldiak, mintegiak, sare sozialak, prentsa, irratia...) 3 puntu gehienez	2	0
Euskararen erabilera zabalkundean eta jardueretan 3 puntu gehienez	2	3
2024an, 12-30 urteko gazteei zuzenduta egindako jarduerak (hiriko eta auzoetako jaietan parte hartzea, hainbat motatako urteurrenak, ospakizunak...). 3 puntu gehienez 1 jarduera: 1 puntu 2 jarduera: 2 puntu 3 jarduera edo gehiago: 3 puntu	2	3
Egin nahi den proiektuaren justifikazioa, horretarako arrazoiak, premiak, arazoak eta bestelako egoerak azalduz. 4 puntu gehienez	4	1
Proiektuaren xedearen eta helburuen deskribapena 4 puntu gehienez	3	3
Ezarritako helburuak lortzeko egin beharreko jarduerak: 4 puntu gehienez	4	1
Proiektuaren justifikazioaren, lortu nahi diren helburuen eta proposatutako jardueren arteko koherentzia eta egokitasuna. 4 puntu gehienez	3	3
GUZTIRA	28	16

Kontuan hartu dira Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onetsi zeneko ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretuaren 74. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa eta Administrazio Publikoen Ondarearen 33/2003 Legearen 92. eta 96. artikuluetan aurreikusitakoa.

Horrenbestez, Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkariak, Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko ekainaren 23ko erabakia tarteko, eta Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 127.1 n) artikulua xedatutakoaren ildotik, erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena: Mirari Rol Jokoak Elkarteari Loreto Arriola kaleko 25.eko lokala erabiltzen uzteko baimena ematea, bere proiektuak garatzeko egoitza gisa erabiltzeko, bi urtez, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hau onesten duenetik aurrera. Urtebetez luzatu ahalko da.

Bigarrena: oinarrien 12. puntuan adierazitako baldintzetan ematen da baimena:

- Baimena doakoa izango da.
- Elkarre edo kolektibo esleipendunak erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu beharko du lokalean egiten dituen jarduerak estaltzeko. Aseguruaren kopia bat udalari bidali behar dio.
- Udalari dagokio lokala onik zaintzea, eta hobekuntza edo aldaketak egitea. Horrelakorik egin behar izanez gero, eskabide arrazoitua egin beharko da, eta aurreikusitako diru-kopurua adierazi. Udalak, Gazteria Zerbitzuak hala proposaturik, bideragarritasuna aztertuko du, eta garaiz eta idatziz erantzungo horiek gauzatzetik dagoen. Edonola ere, ezingo da higiezin edo bertako edozein gelatan obrarik egin udalak berariazko baimen idatzia eskuratu ezean.
- Entitateek eta kolektiboek onik eta txukun zaindu beharko dituzte lokalak. Jaso zuten egoera berean itzuli beharko dute lokala, hura erabiltzeko aldia bukatzen delarik.
- Ezin izango da edari alkoholik edan, erre eta janaririk prestatu.
- Erabilera-baimena edo lagapena zergetatik —OHZ, zaborrak— salbuetsita egongo da, eta udalaren kontura izango dira argindar- nahiz gas-kontsumoa eta ur-kontsumoa.
- Entitateek beren gain hartzen dute ondasuna erabiltzeko eta bertan jarduerak egiteko behar diren lizentzia eta baimen guztiak aldeztatik eskuratzeko ardura.
- Entitate eta kolektiboek beren gain hartu beharko dute lokala okupatzearen ondoriozko erantzukizuna, eta beren jarduerak hirugarrenei eragin liezazkiekeen kalteen aurrean erantzun. Lokala erabiltzeko baimena ematera mugatzen da udala, eta ez du bere gain hartuko egite edo ez-egitearen ondorioz lokalean gerta litekeen kalte material edo pertsonalen gaineko erantzukizunik, ez zuzenean ez modu subsidiarioan, entitate edo kolektiboari baitagokio erantzukizun zibileko aseguru kontratatzea, eta baimenak iraun bitartean indarrean edukitzea. Vitoria-Gasteizko Udalak aseguratu gehigarriaren izaera izango du, horregatik hirugarrenaren izaera galdu gabe.
- Inolaz ere ezingo diote baimendutako entitateek berek hartutako lekua beste inori alokatu edo utzi. Ezta irabazi-asmoz erabili ere.
- Entitate eta kolektiboak jakitun dira eta onartu egin beharko dute Vitoria-Gasteizko Udalak eskubidea duela lagapena bere kabuz baliogabetzeko, interes publikoa dela kausa, Administrazio Publikoen Ondarearen 33/2003 Legearen 92.4 artikuluan araututako kasuetan, eta ez duela horregatik ordainsaririk eman beharrik.
- Baimendutako lokala ikuskatzeko eskubidea izango du Vitoria-Gasteizko Udalak, baimenean zehaztutakoaren arabera erabiltzen dela bermatzeko.
- Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92.7 artikuluan jasotako gainerako betebeharrak.

Hirugarrena: itxarote-zerrenda hau sortu da:

1. Gasteiz Fights Cancer.

Eskatzaileen beharretara egokitzen ez direlako ordutegi eta egun liberrik geratzen bada, Gazteria Zerbitzua zerrendako entitateekin harremanetan jarriko da, leku huts horiek bete ditzaten.

Laugarrena: elkarteei erabakia jakinaraztea eta ALHAOn argitaratzea. Orobat adieraztea horren kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Nolanahi ere, aldeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera. Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkeztu dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urriaren 3an

Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkaria
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ